

Zein da zein aurtengo Usopopen?



Usopop festibala

Non: Sara (Lizarrieta). **Noiz:** maiatzak 30.
Sarrera: 10 euro.
Informazio gehiago: usopop.com



King Creosote (goian) eta Wall of Death (behean).

MAIATZAREN 30EAN da hitzordua, Sarako Lizarrietan. Lapurdiko inguru horretan antolatu ohi den musika jaialdia erreferentziatzeko zita bihurtzen ari da Euskal Herriko *indie* panoraman. “Musika berriak eta Amalurra” goiburuararekin, nazioarteko musikariak eta euskaldunak uztartu izan dituzte aurreko edizioen karteletan; eta musikaz gain, bertako produktuetan oinarritutako eskaintzak egiten du berezi.

King Creosote bakarleri eskoziarra da aurtengo kartelburua. Kenny Anderson dago izen artistiko horren atzean, 1990eko hamarkadan hainbat taldetan jardun ondoren Fence diskoetxea sortu eta bakarka hasi zen musikaria. Ibilbide oso produktiboa izan du geroztik, bere kasuan ez da arraroa urte berean bi edo hiru disko publikatzea.

Dena den, ez da egungo munduak maiz exigitzen duen produkzio-erritmo frenetikoan murgildu den norbait, antolatzaileen esanetan. Glasgowtik urrun, itsasaldeko herri txiki batean bizi baita eta “hamar bat urtez bertako talde ttipien garapena zaindu du eta kultura alternatiboa baserri mundura etorrazazi du”.

Belako eta Wall of Death

Azkeneko bosturtekoan jaio diren bi taldek ere eman-goto dute zeresana aurtengo Sarako zitan: Wall of Death paristarrek eta Belako mungiarrek. Rock post-punkodelikoa egiten dute aurrenekoek, 2010ean hasi ziren jotzen eta bi urte geroago argitaratutako *Main obsession* diskoa da beraien erreferentzia nagusia.

Belakoren kasuan, 2011tik gelditu gabe ari dira. Post-punk klabean osatutako *Eurie* disko luzearekin (2013) eta iaz argitaratutako *AAAA!!!!* eta *Bele beltzak baino ez* EPekin jaialdi garrantzitsu askotarako sarbidea lortu dute, baita publikoa harritu ere, zuzenean erakusten duten indar eta freskotasanarekin.

Thousand eta Petti, zein baino zein

Lizarrietako mendatearen beste aldetik etorriko da Petti, Beratik. Noise Hole eta Zup taldeetan aritu ondoren, 1997tik bakarka kantatzeari ekin zion, folk amerikarra eta blues sustraiak uztartuz. Ekainean aurkeztuko omen duen disko berriaren laginen bat eskainiko ote du Usopopen?

Thousand da maiatzeko jaialdiko protagonistetan konfirmatu den azkena. Stéphane Milochevitch gaztearen proiektua da: zenbait urtez beste musikarientzat lanean aritu ondoren 2008an hasi zen bakarka, “folk idorra” eginez hasieran Usopopera ekarri dutenek kontaktzen dutenez. Azken diskoan harago joan da, musika beltzaren arima ere bereganatuz.

Etorkizunaren elkartzen diren dantzari, koreografo, musikari eta konpositoreen *Leibotik* ikuskizuna eta A Side B Side DJekin bukatuko da jaialdia. ■

Gorka Bereziartua Mitxelena